

Elgoibar - 1277. zenb.  
XX. urtea - 2023-03-03



TOKIKOM

BARREN

# Haritz dantza taldeak, 50 urte





Cuidando la Salud Ambiental

**618 198 760**

*ivan@plaganatura.eus*

*www.plaganatura.eus*



**Elgoibartarra da Ivan Rogel. Ingurumen-Zientziak ikasi ditu, 25 urte ditu eta duela sei bat hilabete bere enpresa sortu zuen: Plaganatura. Gerotzik, han-hemen dabil, askotariko espezieen izurriak kontrolatzeko ahaleginean.**

► **Kontaguzu, Ivan, zein den orain arte egin duzun bidea.**

Haurra nintzenetik erakartzen nau naturak. Gogoratzen naiz ahal nuen guztietan irteten nintzela zomorro bila; halaxe deitzen nien orduan. Narrastiak, anfibioak eta era guztietako intsektuak biltzen nituen, gero jaten emateko. Horrexegatik aukeratu nituen zientzia alorreko ikasketak ere, naturarekin lotura estuagoa zutelakoan. Batxilergoa amaitu nuenean, nire gustuetara egokitzen zen goimailako ziklo batean eman nuen izena Bilbon, Ingurumen-osasuna izenekoan, zeinean flora eta fauna osoa aztertzen dugun, behar den oreka mantentzeko. Izurriteak kontrolatzen aritzen zen enpresa batean egin nituen praktikak eta hainbeste gustatu zitzaidan mundu hori, beste pauso bat ematea erabaki nuela. Hala, Gasteizera joan nintzen, EHUUn Ingurumen Zientziak ikastera, etorkizunean praktiketara ikasitako hori birmoldatu asmoz.

► **Izurriteen kontra egiteko modua birmoldatu nahi duzula diozu, zergatik? Nola egin asmo duzu?**

Bai, uste dut beharrezkoa dela espezie bakoitzerako produktu espezifikoak erabiltzea. Egia da orain dela gutxi arte erabiltzen ziren produktuak generikoak zirela eta bizidun mota guztiak hiltzen zituztela, baina gizartea eta teknologia etengabe ari dira aurreratzen. Horregatik, merkatua aztertu dut intsektuen ugaritzea eta egiturazko kalte tipikoen agertzea zerk sortzen duen ikusteko, arazo

horri aurrea hartu ahal izateko. Kasu gehienetan beharrezkoa izango da produktuak erabiltzen jarraitzea, baina iruditzen zait bi neurriak konbinatu beharko genituzkeela inguruari eta bereziki geure buruei ahalik eta kalte txikiena egiteko, eta aldi berean, borrokatu nahi ditugun espezieen aurka ahalik eta eraginkorrenak izateko.

► **Zerk bereizten zaituzte beste enpresa batzuetatik?**

Beste enpresa gehienetan ez bezala, gure zerbitzuetan beti pauso berbera ematen da: lehenik eta behin, ikuskapen sakona egiten dugu, izurritea zergatik sartu den azaltzen duen txosten zehatza, eta behin hori eginda, zein neurri hartu behar diren azaltzen dugu bertan. Gainera behin zerbitzua bukatu ondoren, segmentua egiten dugu eraginkorra izan dela ziurtatzeko.

► **Zer zerbitzu eskaintzen dituzue?**

Intsektuen eta karraskarien prebentzioan eta kontrolean aritzen gara nagusiki, baina desinfekzioak ere egiten ditugu. Agertzen diren izurri ohikoenak urtarorearen arabera aldatzen dira, baina karraskariak, euliak, inurriak, labezomorroak edo arkakusoenak izaten dira.

► **Zer motatako enpresetan egiten duzue lan?**

Etxebizitzetan eta negozioetan lan egiten dugu, baina Osasungintzatik elikagaiak manipulatzeko dituzten negozioetan zomorrerik ez egotea eskatzen dutenez, dei asko jasotzen ditugu saltokietatik ere. Izurriteak prebenitzen ditugu taberna, jatetxe, okindegi, harategi, arrandegi, supermerkatu edo hoteletan.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)




[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

## Izaro Etxegibel Soraluze

Euskara teknikaria

### Bat



***"Edo 'ez dakizu zenbat bider egin dudan zurekin amets' esan zizutenekoak. Hitz batzuk ez ditu sekula haizeak eramaten. Kontuz"***

**M**anuren argazkiak izan dira nire hitzen aterpe orain arte, haren irudiek egin dituzte erakargarri nire idatziak, bakarren batentzat egin badituzte, egin ere. Baiezkoan nago, galdetu izan dizut; kritika zalea naiz, aberasgarri izan ohi zaizkit.

Bakarrik egongo naiz zure zain hemendik aurrera, *Barren* zabaldu eta hortxe, 3. orrialdean, eskuinean, iragarkiak garestien diren lekuan, begiak maiteen duen leku horretan. Nago, irudirik gabe, apainago idaztea egokituko zaidala zure arreta erakartzeko, zure begietatik sartzeko aukera eman diezadazun, zure bizitzako zatitxo bat eskaini, eta esan nahi dizudanari adi egon zaitezten. Irakurri eta ulertzeaz gain, nire hitzek zure barrenak eragitea lortzen badut, edo zer pentsatu ematen badizut, zorionekoa ni, ez dago arrakasta handiagorik. Saiatuko naiz interesa pizten; saiatuko naiz, bai, hitzak indar berezia duela uste baitut. Zein garrantzitsua hitzaren eragina, bai idatziz eta bai ahoz. Jakin dakit hitz batzuk ez dituela haizeak eramaten; hor geratzen dira iltzatuta, gure barnean. Haizeak eramane al ditu txikitana amamak kontatu zizkizun ipuinak? Kantu haren letra, horman idatzita egunero irakurtzen zenuen hura... Non daude ustez maite zintuen hark behin esan zizkizun hitzak, bihotz barruan geratu zitzaizkizunak, inoiz ezerk baino gehiago mindu zintuzten haiek? Edo "ez dakizu zenbat bider egin dudana zurekin amets" esan zizutenekoak. Hitz batzuk ez ditu sekula haizeak eramaten. Kontuz.

Zintzoak dira hitzak, benetakoagoak, argazkiak gezurra ezkuta dezake: ematen du, baina ez da. Harago: irudi batek ez du zertan mila hitzek baino gehiago balio.

Lortuko ahal dut nire hitzak haizeak ez ditzan eramane, lortuko ahal dut zure barruan geratu daitezene, une batez bada ere, soilik une batez.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

### Egon hadi lo eta jango duk mehe!

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskarari beste kolpe gogor bat eman dio. Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko Uliazpi Fundazioari (hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie desgaitasunen bat dutenei eta haien senideei) tokatu zaio oraingoan. 2021eko uztailean onartu zuen Uliazpik 34 zaintzaile kontratatzeko prozesua; euskararen ezagutza (B2 titulua) baldintza zen 32 posturentzat, eta meritua beste birentzat. Betekizun hori, ordea, bertan behera utzi du auzitegiak. Lanpostu publiko bat eskuratzeko baldintza euskararen ezagutza izateak enplegu publikorako eskubidea urratzen duela ebazti du. Ez da lehen aldia hau gertatzen dela. Aurretik Irungo eta Laudioko Udaltzaingoetarako deialdiak izan ziren, eta Barakaldoko Udalaren kultura zerbitzuen lehiaketa.

Niretzat batean zein bestean euskararen aurkako giro kezagarria ari dira sortzen epaileak. Euskara normalizatzeko bidean oztopoak jartzen ari dira. Gipuzkoako Aldundiak helegitea jarriko duela jakinarazi du, ondo, baina ez dakit zerbait lortuko den. Izan ere, arazoa da gaztelania inposatzen duten lege eta auzitegiek izango dutela azken hitza, Madrilen.

Espainiako eta Frantziako auzitegiei eta epailei ez die axola euskarak. Ez dute euskararen beharrik justizia arloan lan egiteko; gaztelania zein frantsesa inposatzen duten konstituzioak eta legeak dituzte. Gure hizkuntzaren akabera hasi da, pixkanaka-pixkanaka, hemengo debeku, hango sententzia. Berehala erreakzionatzen ez badugu, beranduegi izango da. Esaera zahar batek dioen bezala, egon hadi lo eta jango duk mehe.

A.I.

Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonen pibilegioak eta rola betiketzen direlako baizik.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

araba álava Foru-erakundeak / Diputazioak foral

Bizkaia Foru-erakundeak / Diputazioak foral

EULE

EMAKUNDE



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658




### **Kiroldegi aurreko zebrabidea ez dute errespetatzen:**

"San Roke kaleko auzokide bat naiz. Tamalez, behin eta berriz kexatzen gara, baina jendeak berdin jarraitzen du. Ez dute errespetatzen kiroldegi ingurua. Autoak edozein lekutan aparkaturik topatu ditugu gaur ere, zebrabidea gainean! Egunerokoa da hau. Zebrabidea altuago jartzea lortu genuen, piboteak ipintzea ere bai... baina jendeak, hala ere, ez du errespetatzen. Kale honetan dabilen trafikoa ikusirik, bidera jaistera derrigortzen gaituzte gure umeeekin, karrotxoekin edota gurpildun aukian. Errespetatu behingoz, mesedez".




### **Pista Beltza zikin dago:**

"Pista Beltzeko guneko batzuk ez dituzte behar bezala garbitzen. Garaje honen irteera zikin-zikin dago, ez dutelako behar bezala garbitzen. Esan digute kaleko garbitzeko makinak pisu handiegia duela guneko horretan erabiltzeko, azpian garajeak daudelako eta ezinezkoa dela garbiketarakamioia hor sartzea. Gutxienez, noizean behin, mangerarekin garbitu beharko lukete".



### **Dendako ataria ez da zabortegea:**

"Dendako atarian sarritan aurkitzen ditut hondakinak. Denetariko zaborra uzten didate, poltsak, fruta azalak, edari likatsuak... Gure dendako sarrera zabortege moduan ez erabiltzeko eskatu nahi dut".



### **Trenbide kaleko segurtasuna hobetu behar da.**

"Trenbideko obrak luzatzen ari dira Mendaron, eta egunero ikusten dut goizetan jendea eskolara bidean edo trenera bidean oinez, errepidetik, ilunpetan. Inguru horretako segurtasuna hobetzeko neurriak hartzeko eskatuko nioke dagokionari".



## Stock kale-azoka antolatu du Txankakuak astebururako

**T**xankakuako merkatariek stock kale-azoka egingo dute gaur eta bihar, denden ordutegian. 24 dendarik hartuko dute parte, eta bakoitzak bere produktuak aterako ditu denda atarira. Hauek hartuko dute parte: Aranburu bitxitegia, Aauri, Bizkor, Astigarraga, Ecenarro, Ikus, Ferpi, G & M jantzi-denda, Garate, Goiara, Ipintza, Iria moda, Iriondo kirolak, Roteta elektrizitatea, Uzuri, Karkizano, Politxa, Barrutia optika, Lagunak koltxoi-denda, Lete, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez estetika, Pitxintxu, eta Sara jantzi-denda.



Stock feriak iraun bitartean, San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleak trafikoa erazten duen egongo dira.

### Lizagar Sar Sagartokixa, Landaola Saria jasotzeko hautagaien artean



Gaur banatuko dituzte Landaola Sariak, eta saria jasotzeko hautagaien artean izendatuta dago Elgoibarko Lizagar Sar Sagartokixa, hain zuzen ere Erakunde Pribatuen kategorian. Lizagar proiektua 2019an sortu zuten Asier Lizarralde eta Ane Muninek, sagarra eta sagardoaren eremutik lehen sektorea biziberritzeko. Lizagar Sar Sagartokixa sagarrarekin era ekologikoan esperimintatzeko gunea da. Besteak beste, sagardoa, sagar zukua, sagar ozpina, sagar dultzea, sagar marmelada, sagar purea, sagardo destilatua eta sagar zukuz egindako madalena eta bizkotxoak ekoizten dituzte.

### Herriko hainbat eragile batu dira bertako natura eta etnografia sustatzeko

Elgoibarko Baso Biziak elkarte, Morkaiko Mendizaleen elkarte, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Saila eta zenbait norbanako batu dira, elgoibartarren artean naturarekiko zaletasunari bide emateko eta Elgoibarko nahiz inguruetako natura ezagutzera handitzeko. Horrez gain, Elgoibarko zein Euskal Herriko fauna eta flora ezagutarazi nahi dituzte, eta natura eta etnografia ondarearen ezagutzera sustatu. Helburu horiek lortzeko hainbat ekimen antolatu dituzte 2023rako Udalaren laguntzaz, eta lehenengoa matxoaren 12an izango da. Egun horretarako bertako zuhaitzen landaketa antolatu dute, baina oraingoan, umeentzat. Ondorengo hilabeteetarako, bestalde, txori kabiak jartzeko eta txoriak ezagutzeko irteera, anfibiak



eta gaueko tximeletak ezagutzeko txangoa, izarrei begiratzeko orientatzeko saioa, *orienting* proba, haziak batzeko irteerak, basoak ezagutzeko bisita gidatuak eta zuhaitz landaketak antolatu dituzte, besteak beste.

## Hemen bertako beste 550 zuhaitz espezie landatu ditu Baso Biziak elkarteak



**E**lgoibarko Baso Biziak elkarteak 1.250 zuhaitz-zuhaiska landatu ditu otsailean Muskiritzuko hegalean dauden lurretan, bi landaketa saiotan. Azkena joan den zapatuan egin zuten, eta hemen bertako 550 espezie landatu zituzten. Guztira 45 boluntario batu ziren deialdira, eta Elgoibarko Baso Biziak taldetik jakitera eman dutenez, Eibar-Arrasate Gurutze Gorriko

Errefuxiatu Programako hainbat kideren laguntza ere izan zuten: "Eskerrak eman nahi dizkiegu Lurgai fundazioari, zuhaitzak landatzen aritu ziren guztiei, Eibar-Arrasate errefuxiatu programako kideei, materiala traktorean igo zuen lagunari, Soraluzeko Baso Biziak elkarteari landaketetarako erremintak lagatzeagatik, hamaiketakoa prestatu zigutenei eta Sallobente elkartekoei", zehaztu dute.

### Ramadanari buruzko hitzaldia antolatu dute 'Auzoko Familiak' egitasmotik hilaren 11rako

Komunitate musulmanak Ramadana hasiko du martxoaren 23an, eta horren harira, hitzaldia antolatu dute *Auzoko Familiak* egitasmo arduradunek. Ramadanak irauten duen epealdian baraua egiten dute musulmanek, eguzkia irteten denetik sartzen den arte. Baina ramadana ez du komunitate guztiak egiten, baldintza jakin batzuk bete behar dituzte

baraua egiten duten pertsonak. Baldintza horiek eta gehiago azalduko dituzte solasaldian Asociacion Cultural Onda Euskadiko kideek. Hilaren 11n izango da solasaldia, 12:00etan Aita Agirre kulturgunean, eta amaitzean mokadutxo egingo dute Marokoko jakiekin. Informazio gehiago 943 741 626 telefonoan edo [aisialdia@elgoibarkoizarra.eus](mailto:aisialdia@elgoibarkoizarra.eus) helbidean.

### Bake epailea eta haren ordezkoa hautatzeko prozesua martxan da Elgoibarren

Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatu behar izaten dira lau urtean behin, eta Elgoibarko Udalak martxan jarri du hautaketa prozesua. Interesa duten pertsonak ondorengoak bete beharko dituzte, besteak beste: espainiar herritartasuna izatea eta adinez nagusia izatea, eginkizun judizialerako ezgaitua ez izatea fisikoki zein psikikoki, eskubide zibil guztien jabe izatea, maltzurkeriazko delituengatik kondenatua ez egotea, birgaitasuna lortzen ez den bitartean,

eta maltzurkeriazko delituengatik, auzipetu edo errudun ez izatea. Aurkeztu beharreko agiri guztiak [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webguneko iragarki taulan daude eskuragarri. Interesatuak, Elgoibarko Herritarren Arretarako Bulegoan (HAZ-SAC) aurkeztu beharko dute dagokion eskabidea, idatziz, martxoaren 7a baino lehen (egun hori barne). Informazio gehiagorako 943 741 050 telefono zenbakira deitu edo [arreta@elgoibar.eus](mailto:arreta@elgoibar.eus) helbidera idatzi daiteke.

## Belaunaldien arteko topaketak antolatu dituzte datorren asterako

**M**eka Lanbide Eskolak *Elkartasun Guneak* topaketak antolatu ditu, belaunaldien arteko harremanak lantzeko, Udalarekin eta Jubilatuen Biltokiarekin elkarlanean. Komunitate horretan parte hartu duten eskolako sortzaile, ikasle ohi eta egungo ikasleek esperientziak trukatzeko foro bat izatea du helburu, belaunaldi batekoek bestekoei ekarpenak egiteko.

Hiru saio egingo dituzte datorren astean: martxoaren 6an Meka Albitzurin egingo dute lehen saioa, automozio eta galdaragintzakoentzat; martxoaren 7an eta 8an, berriz, Arregitorreko Meka Lanbide eskolan izango dira saioak. Lehenengoa LPO eta administraritzakoentzat eta bigarrena erizaintza eta gizarteratzekoentzat. Saio guztiak bi ordukoak izango dira, 10:30etik 12:30era.

## Lorategi eta berdeguneen mantentze lanak lehiaketara atera ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak lehiaketara atera du udal lorategi eta berdeguneen kontserbazio eta mantentze zerbitzuaren kontratazioa. Hasierako aurrekontua 301.652,89 eurokoa da (BEZ gabe). Enpresek martxoaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Jarduketa-eremuaren azalera 238.928,02 m<sup>2</sup>-koa da, eta bi lotetan banatu dute zerbitzua "belarra sarriago eta hobeto ebakitzeko eta lorategiak behar bezala mantentzeko".

1. lotea, 148.569,51 metro koadro (% 62,2): hiriguneko eremu berde finkatuak, batez ere, lerrokadura-zuhaitzak eta lorezaintzak eta parterrak.

2. lotea: 90.358,51 metro koadro (% 37,8). Industrialdeen inguruko berdeguneak eta hirialdekoak ez diren auzoak. Zuhaitz, belar txar eta abarren inausketa eta garbitasunari begira egongo da.

Informazio guztia [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean eskuratu daiteke.

## Aitziber Aranberri eta Maialen Iriarteren arteko solasaldia antolatu du Elgoibarko EH Bilduk



Elgoibarko EH Bilduk solasaldia antolatu du datorren asterako: Maialen Iriarte Okiñena Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaia eta Aitziber Aranberri Uranga Elgoibarko Udalako EH Bilduren alkategaia arituko dira solasean. Martitzenean izango da, martxoak 7, 19:00etan EH Bilduren bilgunean.

## Desfibriladoreak erabiltzeko boluntarioen sarea osatzeko ikastaroak emango ditu Elgoibarko Udalak

Hamar desfibriladore jarriko dituzte herriko zenbait gunetan, eta horiek erabiltzeko prestatu nahi dituzte herritar batzuk, bihotz biriketako gelditze egoeran egon daitezkeen herritarrei laguntzeko. Hamar prestakuntza saio emango ditu doan (hamar pertsonako taldetan). Hiru orduko saioak izango dira, eta 18 urtetik gorakoek hartu dezakete parte. Martxoan eta

apirilean egingo diren saioetarako funtzionarioei, irakasleei eta ikastetxeetako langileei, guraso-elkarteetako kideei, kirol-elkarteei eta klubei dei egin die Udalak. Saioak astelehenetik asteazkenera egingo dituzte, (9:00-12:00/13:30-16:30/17:00-20:00), Kultur Etxeko sotoan. Interesatuek martxoaren 9rako eman behar dute izena: <https://labur.eus/elgoibarkardiobabestua>



## 250 ekarpen baino gehiago jaso ditu Mendaroko EHBilduk herritarrei zabalduetako inkestatik

Hurrengo agintaldirako lehenetsunak markatu eta kanpaina-aurreaz eta kanpainaz hausnartzeko bilera irekia antolatu zuen Mendaroko EHBilduk otsailaren 27rako eta hogeit bat lagun elkartu zirela jakinarazi dute. Prozesu baten parte izan zen batzarra. Aurrena, joan den udaberrian, udal hauteskundeak prestatzeko lan talde bat osatu zuten, herriaren egoeraz hausnartzeko. Lan talde hark hilabeteetan egindako lana EH

Bilduren oinarriaren ekarpenekin aberasteko, urriaren amaieran lan saio parte-hartzaile bat antolatu zuten, herri nortasuna, gizarte politikak eta herri jasangarria ardatzen bueltan, eta 50 ekarpenetik gora jaso zituztela jakinarazi dute. Ondoren, inkesta bat zabaldu zuten herriak arlo desberdinetan bizi duen egoeraren diagnostikoa egiteko eta 60 erantzunetik gora eta 250 ekarpen baino gehiago jaso zituztela nabarmendu dute.

### 'Agenda30' ekimenaren baitan udaletxean izan dira Mendaroko eskolako haurrak, energiaren erabilera eta kostuez galdezka

Agenda 30 ekimenaren barruan energiaren gaia lantzen ari dira aurten eskola-umeak, eta Mendaroko eskolako LH1etik LH6ra arteko ordezkariak bilera izan zuten astelehenean Iñaki Arregi alkatearekin eta Izaro Irusta Debegesako Garapen Iraunkorreko teknikariarekin, udaletxean bertan. Galderak prestatuta eraman zituzten eskola-umeek eta banan-banan erantzun zituen alkateak, Irustak gidatutako saioan. Udalak autokontsumo eta energia berriztagarrien inguruko azterketarik eginga duen, argiteria publikoaren urteko kostua zenbatekoa den, kaleko-argiak argiztatzeko eguzki energia zergatik ez den baliatzen, Garagartzan argi gehiago zergatik ez



duen jartzen, farola batek zenbateko iraupena duen, nola pizten dituzten, Gabonetako argiek zenbateko kostua izan duten eta antzeko galderak egin zizkieten alkateari haurrek.

### 'Administrazioa zugandik gertu' programa, Mendaron

Espainiako Gobernuaren Ordezkariordeztzak *Administrazioa zugandik gertu* ekimena jarri du abian 500-8.000 biztanle arteko udalerrietako herritarrei administrazioaren izapide eta prestazioen kudeaketa errazteko. Hala, Gobernuaren Ordezkariordeztzako talde bat Mendarora etorriko da Lurrealde Politikarako

Ministerioak, Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritzaren eta Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzaren bitartez, ematen dituen zerbitzuei buruzko eskaerak *in situ* izapidetzeko eta gehien eskatzen diren zerbitzuei buruzko informazioa emateko. Saioa martxoaren 8an izango da, 11:00etan, Mendaroko udaletxean.

### Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, barikua, Mendaron

Gaur, barikua, hilak 3, odol ateratzeak egingo dituzte Mendaron, 17:00etatik 21:00etara. Odol Emileen Elkartetik jakinarazi dute ordua

hartu behar dela odola emateko, gaur eguerdia aurretik ondorengo telefono zenbakira deituta: 747 440 060.

## Elkarretaratzeak, manifestazioa eta hamaika ekintza antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron Martxoaren 8aren harira

Soldata arrakala dela, botere eta erabaki eremuetara iristeko zailtasunak direla, indarkeria matxista dela, zaintza eta etxeko lanen banaketa desorekatua dela... egiturazko desberdintasuna pairatzen jarraitzen dute emakumeek eta horren kontra egiteko eguna da Martxoaren 8a, aldarrikapenerako eguna. Horretarako elkarretaratzeak antolatu dituzte Elgoibarren, eta manifestaziora deitu du Mendaron, Tratu Onen Aldeko Taldeak. Elgoibarren, 13:00etan eta 19:00etan egingo dituzte elkarretaratzeak, Kalegoen plazan, eta 19:00etan abiatuko dute manifestazioa Mendaron Herriko Enparantzatik. Tratu Onen Aldeko Taldetik manifestaziorako leloak proposatzeko ere eskatu diete herritarrei eta helbide bat eman dute mezuak jasetzeko: [mendarokotratuon@gmail.com](mailto:mendarokotratuon@gmail.com). Bukaeran dantza taldekoek prestatutako koreografia dantzatu dute.



Baina, Martxoaren 8a gai hartuta, hainbat ekintza antolatu dituzte bi herrietako udalek eta hainbat eragilek. Hona hemen, denak bilduta:

## ELGOIBAR

**Martxoak 3a:** *Lumineszenteak* erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Igone Mariezkurrena Fernandez kazetariaren eta Irantzu Pastor Ordoki argazkilariaren proiektua da *Lumineszenteak*. Diskurtso nagusietan lekuri ez duten emakumeen bizitza-historiak eta irudiak biltzen ditu. 2018tik 2021era, Palestinan, Indian, Lakota nazioan eta Euskal Herrian dokumentatutako narrazioak eta material grafikoa batu dituzte. Hilaren 19ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era.

**Martxoaren 4a:** Autodefentsa saioa emakumeentzat, Olaizaga kiroldegian, 9:30etik 12:30era bitartean. 13:00etatik aurrera, berriz, Uluka Batuka taldekoak kalez kale ibiliko dira, beste herri batzuetako batukada taldeekin batera. 14:30ean, berriz, Sigman elkartuko dira emakume guztiak elkarrekin bazkaltzeko. Dantzaldia ere izango dute ondoren.

**Martxoaren 7a:** *Nire izena, zure izena. Nire*

*ahotsa, zure ahotsa* izeneko ipuin kontaketa saioa, Gotzon Garate udal liburutegian. Mireia Delgado pedagogo eta ipuin kontalariak gidatuko du eta bi saio izango dira: 17:00etan, LH1eko ikasleentzako, eta 17:30ean, LH2 eta LH3koentzat.

**Martxoaren 8a:** Elkarretaratzeak egingo dira Kalegoen plazan, 13:00etan eta 19:00etan. Egun berean, *El techo amarillo* filma emango dute Herriko Antzokian, 21:00etan hasita. Isabel Coixetek zuzendutako filma da eta 2018an emakume talde batek sexu-abusuak egiteagatik Lleidako Antzerki Gelako bi irakasleren kontra jarritako salaketa du abiapuntu.

**Martxoaren 10a:** Narrutsik talde feministak antolatuta, Virginie Despentesen *King Kong teoria* liburuaren inguruko tertulia eta pikoteoa, 19:00etan, Kultur Etxeko Sotoan. Gizonkeriaren kontrako saiakera izateaz gainera, feminismo kontserbadorearen oinarriak durduzarazi dituen

# MENDARO

**Martxoaren 8aren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Mendaron, Udalak eta Arno Guraso Elkarteak batetik, eta Tratu Onen Aldeko Taldeak bestetik. Hona bien batura:**



**Martxoaren 5a:** *Elbira* izeneko dokumentala proiektatuko dute domekan, hilaren 5ean, San Agustin kulturgunean, 18:00etan. Elbira Zipitria Irastortza hezitzaile eta euskaltzalea (Zumaia, 1906-Donostia, 1982) hil zen egun berean estreinatu zuten iaz dokumentala. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu eta Baleuko ekoiztetxeak sortu dute, eta hainbat adituren eta haren gertuko eskutik Zipitriak egindako ekarpenen sakontzen dute dokumentalean.

**Martxoaren 8a:** 11:00etan *En los margenes* filma aztertuko dute zineforumean Edurne Izagirrek gidatuta. Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta, manifestazioa egingo da 19:00etan, eta bukaeran dantza taldekoek gidatuta koreografia.

**Martxoaren 11:** Berdintasun Scape Rooma antolatu dute Gaztelekuan. 17:30ean hasiko da.

**Martxoaren 12a:** *The Snow Queen* filma emango dute San Agustin aretoan, euskaraz, haurrentzat.

**Martxoaren 16a:** Mendaroko emakume sahararraren ekimenez, emakumeen topaketa egingo dute Jubilatuen lokalean, 18:00etan. Emakume askotarikoak batu, eta espazio seguru batean, beren bizipenez arituko dira hizketan, kafe tertulia formatoko saioan. Emakume sahararrek tea prestatuko dute saiorako.

**Martxoaren 23a:** Bea Egizabalek *Magma mia* bakarrizketa aurkeztuko du San Agustinen, 18:00etan. 18 urtez gorakoentzako bakarrizketa feminista da, militantziaz asko duena, baina umoretik gehiago. "Haserre nago, sutan nago, irakiten nago... presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezi naute. Sumendia lehertzeaz dago *Magma mia!*", dio aurkezpen-kartak.

liburua izan da *King Kong teoria* eta Itziar Diez de Ultzurrunek itzuli zuen euskarara eta Eskafandra bilduma feministak argitaratu. Egun berean, 22:00etan, Naniren kontzertua, Sotoan.

**Martxoaren 9tik 13ra:** Emakumeak gora kanpaina, Kalegoen plazan. Emakumeen Nazioarteko Egunaren aurtengo kanpainaren leloa da *Emakumeak gora!*. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatu du, Emakunderen eskutik eta hiru foru-aldundien, EUDELen eta Donostia, Bilbo eta Gasteizko udalen elkarlanaren bitartez. Kanpaina honen bidez, emakumei lidergo-postuetara berdintasunez iristea eragozten dieten oztopo nagusiak aurkezten dituzte, bai eta mito faltsuak eraitsi ere. Horretarako eskailera batzuk jarriko dituzte plazan, bai eta kartelak ere QR kodeekin. Informazio gehiagorako: [www.emakumeakgora.eus](http://www.emakumeakgora.eus).

**Martxoaren 17a:** Zine-foruma, Lilan, 18:30ean. *El orden divino* filma aztertuko dute. Petra Biondina Volpe zuzendariaren filma da, 70eko hamarkadan

girotutako filma, Suitzan emakumeek boto eskubiderik ez zuten garaikoa.

**Martxoaren 19a:** *Nire aitak ere bere denbora eskaintzen dit* marrazki lehiaketa.

**Martxoaren 22a:** *Close* filma emango dute Herriko Antzokian, 21:00etan. Lukas Dhontek zuzendutako drama da. Leo eta Remi, 13 urtekoak biak, gertuko lagunak dira eta umetatik ezagutzen dute elkar. Bere istorioek bira bat ematen dute pentsaezina den gertaera batek banatzen dituen arte. Leo, orduan, Sophie Remiren amarengana hurbiltzen da, ulertzen saiatzeko.

**Martxoaren 27a:** Emakumeen hausnarketarako saioa: Lan arriskuak genero-ikuspegitik begiratuta. 18:00etatik 20:00etara, Lilan.

Egun berean, ludotekan postontzi morea jarriko dute eta muralak egingo dituzte, eta Gaztelekuan pankartak egin eta *Emariak* mahai jolasera jolastuko dira.

**GU HERRIKO STEM EMAKUMEAK**

**Nire lana...**

**Ana Carolina Lodeiro Caldeira**  
Administrazio arduraduna  
SOMATE. Makina berorien fabrikatzaileak.

**Gustatzen zait...**

Bikiletan ibiltzea Meedira joatea Irakurtzea... eta ikastea!

**Behar duzun informazioa?**  
Baztertu!  
Banda beldurra eta otarri!  
Elkarrekin hobeto ogiago dugu!

*“Zientzia alorreko ikasgaiekiko dauden estereotipoak apurtu eta ikasleak STEM mundura erakarri behar ditugu”*

# ANA CAROLINA LODEIRO CALDEIRA

STEM emakumea

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

**Elgoibarko Udala emakumeak zientzien alorrera erakartzeko ahaleginean ari da azken urteotan, eta aurten ere hainbat ekimen antolatu ditu Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira. Herriko zenbait eragilerekin elkarlanean prestatu dute aurtengo programa, eta besteak beste, zenbait dendetako erakusleihoak emakume zientzialarien irudiekin apaindu dituzte, eta 'Gu herriko STEM emakumeak' kale-erakusketa ere antolatu dute, herriko emakume zientzialariak ezagutzera emateko. Horietako bat da Ana Carolina Lodeiro Caldeira (Sao Paulo, Brasil, 1979). Soraluzeko Somabe enpresan dihardu lanean, eta horrez gain, STEM saioak ematen ditu eskoletan, gaztetxoak eta bereziki neskak, sektore honetara erakartzeko.**

## **Sao Paulotik Elgoibarrera. Nolako izan da bidai hori?**

Sao Paulon jaio nintzen, baina aita galiziarra denez, nazionalitate bikoitza eduki dut jaiotzetik. Aitaren aldeko familia guztia Galizian bizi da, eta ume-umetatik bidaiatu izan dut asko Brasildik Galiziara. Esan dezaket ia gehiago naizela galiziarra brasildarra baino. Nik ez dut samba dantzatzen, muñeirak dantzatzen ditut. Sao Pauloko Casa de España elkartean ikasi nuen muñeirak dantzatzen. 2001ean Santiago de Compostelara joan nintzen Galiziako Xuntak zeukan programa baten bidez ikasketa batzuk egitera, eta kasualitatez, gerora nire senarra izango zena ere hara joanda zegoen Elgoibartik, gaita ikastaro bat egitera. Han ezagutu genuen elkar eta 2005ean etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera. Lehenagotik bisitan egonda nongoen, baina 2005ean geratu nintzen hemen.

## **STEM munduan diharduzu lanean gaur egun, baina zuk ez zenituen STEM ikasketak egin.**

Harreman Publikoak ikasketak egin nituen Sao Paulon, eta gero alor horretako bi master egin nituen. Komunikazio korporatibo alorrean

hasi nintzen lanean enpresa amerikar batean. Euskal Herrira etorri nintzenean bizitzera sektore berean lan egin nahi izan nuen, baina komunikazio korporatiboa lantzen duten enpresek euskaraz jakitea eskatzen zuten. Nik ingelesa, frantsesa, gaztelania eta portugesa hitz egiten nituen, baina euskaraz ez nekien. Iritsi berria nintzen eta euskara ikasteko asmoa neukan, baina lanpostu horietan ezinbestekoa zen euskara jakitea hasieratik, beraz ez nuen lanerako aukerarik izan. Orduan Madrilera joan nintzen, eta han aritu nintzen lanean, nire semea jaio zen arte. Semea jaio zenean itzuli nintzen Elgoibarrera, eta kuadro elektrikoak egiten zituen enpresa batean hasi nintzen lanean. Teknologia eta hemengo enpresa mundua ezagutzen hasi nintzen, eta gustuko nuela konturatu nintzen. Sektore horrek ez zeukan nire ikasketekin zerikusirik, baina ondo moldatu nintzen.

## **Soraluzeko Somabe ingeniari-tza enpresara iritsi zinen. Zein da zure zeregina bertan?**

Elgoibarko enpresa desegin zenean Somaben (Soraluze Makina Bereziak) hasi nintzen lanean 2012an. Kudeaketa arazoak zeuzkatelako deitu zidaten, eta lan zehatz bat egitera joan nintzen hasieran. Orain dela bost urtetik, enpresako bazkide naiz, eta egunerokoan gerentearekin egiten dut lan. Administrazio arduraduna naiz, eta nire esku daude giza baliabideak, lan prebentzioak eta marketina. 18 langile gara enpresan eta apur bat denetik egitea tokatzen zaigu, beraz, bezero batzuen ardura ere badaukat. Langile guztiak ingeniariak dira han, ni izan ezik, baina oso ondo ulertu dut teknologia guztia eta lantaldeko bat gehiago naiz. Matematika asko gustatzen zait, eta baita fisika eta kimika ere. Unibertsitaterako hautapropa egin nuenean Ontzigintzako Ingeniaritza, Harreman Publikoak eta arkitektura alorrak ere gainditu nituen, baina une hartan Harreman Publikoen alorrean hasi nintzen lanean.

*"Enpresako langile guztiak ingeniariak dira ni izan ezik, baina oso ondo ulertu dut teknologia guztia eta lantaldeko bat gehiago naiz"*

### **Enpresako lanaz gain, eskoletan ere STEM saioak ematen dituzu.**

Sinisten dut etorkizuna sektore honetatik etorriko dela, eta ikasleak mundu honetara erakarri nahi ditut. DBHko ikasleei ematen dizkiet saioak, eta saiatzen naiz beraiek ulertzen dituzten kontzeptuak erabiltzen, zientzia esplikatzeko. Adibidez, bizikletaren gorpila zulatu eta kubo bete uretan sartzen dutenean gurpilak haizea nondik galtzen duen ikusteko, estankotasun kontrola egiten dutela azaltzen diet eta guk estankotasun makinak egiten ditugula. Ohartarazi nahi diet zientzia eta teknologiarena ez dela mundu abstraktu bat; egunero izaten ditugun arazoak gainditzen laguntzen duela erakusten saiatzen naiz. Teknologiarekin txundituta nago; izugarri gustatzen zait. Adimen artifizialarekin ere lanean hasita gaude, eta ikaragarria da. Nire bizitzan oso presente dago teknologia. Ikasleei esaten diet ez dela mundu zaila, nik ez ditudala zientzia ikasketak egin, eta hala ere, hemen nabilela lanean. Nire profila ez da zientzia sektorean ohikoena, baina hala ere, lanpostu duin bat lortu dudala azaltzen diet. Hau da etorkizuna; ez daukat dudarik. Elgoibar eta Debabarrena etorkizunean garatuagoak eta hobeak izateko lanean ari gara, gure ondorengoei etorkizun duin bat emateko eta atzerrira joan ez daitezzen. Urtebete edo bi joan daitezela kanpora nahi badute formatzera eta bizitza zer den ikastera, baina itzuli daitezela hona, hemen badagoelako lanerako aukera. Enpresa interesgarri pila bat ditugu, etxetik hamar minutura. Nire lanetik gehien gustatzen zaidana gure proiektuak martxan ikustea da.

### **STEM mundua gizonetzkoena da oraindik?**

Nagusiki, bai. Nire enpresan jende asko ezagutu dut hamar urte hauetan, eta denak gizonetzkoak. Enpresa honetan ez naiz inoiz diskriminatuta sentitu, baina aurretik entzun behar izan ditut komentario deserosoak. Lan handia daukagu egiteko. Azken lan eskaintza atera genuenean ere, hamar curriculumetatik zazpi gizonetzkoenak ziren. LH6ko ikasleekin saioak egin izan ditudanean ere askotan igarri diet neskei gai hauek ez dituztela bere sentitzen. Baina sakelako telefonoarekin ibiltzea gustatzen zaie. Eta galdetu izan diet zergatik uste duten ezin direla beraiek izan sakelako telefonoen programatzaileak! Teknologia beraien zaletasunetara eramaten dugunean konturatzen

*"Zientzia eta teknologiarena ez da mundu abstraktu bat, eguneroan ditugun arazoak gainditzen laguntzen digu"*

dira beraiek ere lekua dutela STEM munduan, baina izugarri kostatzen zaie. Emakumeak ahaldundu eta teknologia mundura erakarri behar ditugu. Beldurra kendu eta probatzera animatzen ditut nik.

### **Nola erakarriko zenituzke gazteak, eta bereziki, emakumezkoak STEM sektorerara?**

Konturatu behar dira matematika edo fisika bizitzako edozein alorretan ditugula presente. Zientzia ikasgaiei dieten beldur edo gorroto hori kendu egin behar dute, eta horretarako ezinbestekoa da konturatzea gure bizitzako parte direla. Zientzia alorreko ikasgaiekiko dauden esterotipoak apurtu eta ikasleak STEM mundura erakarri behar ditugu. Adibidez, perimetroa hitzak askori atzerakada ematen die, baina behin ikasle bati esan nion bere gelako horma arrosaz margotzeko zenbat pintura beharko lukeen kalkulatzeko, eta berak gela margotu nahi zuenez, perimetroaren formula erabili zuen kalkulua egiteko. Teknologia eta zientzia guri laguntzeko dago, eta ez lanpostuak kentzeko. Robotak egiten ditugu, baina guri laguntzeko eta eraginkorragoak izateko. Neska batek ileapaintzailea izan nahi zuela esan zidan eta berak ez zuela teknologiarik behar, baina esan nion aukera zuela robot bat sortzeko ilea garbitu ondoren bezeroei ilea lehertzeko, eta horrek denbora asko aurreztuko ziola. Harritu egin zen, baina ideia gustatu zitzaion. Oso mundu zabala eta interesgarria da hau, egunero ikasten ditugu gauza berriak eta egunero gainditzen ditugu erronkak. Gainera lan baldintza duinak eskaintzen dituen sektorea da, eta hori bizitzeko oso garrantzitsua da. Iazko eskola saio batean bikain marrazten zuen neska bat gerturatu zitzaidan. Berak eskuz egiten zuena programa baten bidez egin zezakeela erakutsi nion eta aho zabalik geratu zen. Hirugarren edo laugarren lan saiorako esan zidan teknologia beste modu baten ikusten zuela eta poztu egin nintzen. Beldurra kendu behar dizkiegu emakumeei.

## 'GU, HERRIKO STEM EMAKUMEAK'



Eguaztenean aurkeztu zuen Elgoibarko Udalak *Gu herriko STEM emakumeak* kale erakusketa. Zientzia alorreko emakumeak gertukoak direla erakutsi nahi izan dute erakusketa honekin, eta batez ere, ikasle emakumezkoak zientzietara erakartzea da helburua. Elkarlanean osatu dute erakusketa. BARREN astekariak elkarriketatu ditu protagonistak, eta Meka Lanbide Eskolak prestatu ditu panelen euskarriak. Zortzi emakumeren esperientziak bildu dituzte panelotan; teknologia, ingeniaritza eta matematika alorreko emakumezkoak dira guztiak, eta elgoibartarrak: Ana Etxeberria Agirregomezkorta *Señorita Anita*, Cristina Montero Garcia (Zumarpe, proiektu arduraduna), Amaia Gabilondo Peñalba (Etxetar, ingeniari mekanikoa), Ana Carolina Lodeiro Caldeira (Somabe, Administrazio arduraduna), Leire Garate Rodrigo (Soraluce S.Coop. Danobatgroup taldekoa, diseinua eta produktuen garapenerako ingeniaria), Miren Aguirre Arrese (Kimika fakultatea, Polymat, UPV/EHU, kimika fakultateko irakaslea eta ikertzailea), Nagore Ruiz de Escudero Zapico (Codesyntax, telekomunikazio-ingeniaria), eta Miren Otal Astigarraga (AVS, proiektu kudeatzailea).

### 011 ERAKUSLEIHOAK

Emakume Zientzialariek ere badute beren eguna nazioarteko egutegian: otsailaren 11. Egun horren harira, Elhuyarrek elkarlanean, emakume zientzialari ezagunak bistartzeko ekimena abiatu du aurten ere Elgoibarko Udalak eta herriko hainbat establezimendutako erakusleihoetara eraman dituzte emakumeok. Egur Arte Tailerreko arduradunek prestatu dituzte zientzialarien irudiak eskolako ikasleen laguntzaz, eta 17 dendatan jarri dituzte, lanbidea ezagutzera emateko. Ekimen hau Bizilabe gazteentzako zientzia- eta teknologia-ekintzak egiteko aisialdi-eskaintzaren barruan kokatzen da, eta aurten ginkana batean parte hartzeko aukera ere egongo da dendaz denda, Actionbound aplikazioa jaitsita. Hauek dira ekimen honetan parte hartu duten establezimenduak: Agurtzane Ileapandegia, Farmazabal, Astigarraga Gys Sport, Lagunak koltxoi denda, Cristina Garcia Estetika eta Terapia Naturalak, Ecenarro, Eizaguirre okindegia, Iriondo Kirolak, Mgs Aseguruak, Olaia Martinez Estetika Zentroa, Leire ile apaindegia, Meraki ile apaindegia, Pitxintxu, Politxa, Roteta Elektrizitatea, Txillarre Ekodenda eta Uzuri Optika.

## Debabarreneko bertso eskoletako ikasleek elkar ezagutzeko saioa egin dute Elgoibarren



**M**utriku, Soraluze, Mendaro eta Elgoibarko bertso eskoletako ikasleek elkar ezagutzeko saioa egin zuten joan zen barikuan Kultur Etxeko Sotoan, Debabarreneko bertso eskoletako arduradunen ekimenez. Bertsozale Elkartearen plaza txikiak sortzen hasia da ikasle gazteenentzat, *Gelatik plazara* ekimenaren baitan. Bertsozale hasiberriak direnentzat plazak

sortu eta gaztetxoei beren eskualdeko beste ikasle batzuekin harremantzeko bidea eman nahi diete; euskaraz jolastu eta bertsoaren bidez euskal kulturaren sozializatzeko bidea eman alegia. 28 neska-mutil elkartu ziren guztira. Martxoaren 24an izango dute gure eskualdeko bertso eskoletakoek *Gelatik plazara* taldekako saioa, Elgoibarren.

### Martxoaren 10ean bukatuko da Elgoibarko idazlan lehiaketan parte hartzeko epea

Elgoibarko Udalak Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez, Elgoibarko VI. Idazlan lehiaketa antolatu du, ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko helburuarekin. 8 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeek hartu dezakete parte, eta martxoaren 10a izango da parte hartzeko azken eguna. Gaia librea izango da, baina euskaraz idatzita egon beharko du. Elgoibarko ikasleek ikastetxean bertan entregatu beharko dituzte idazlanak (hiru kopia), eta Elgoibartik kanpora ikasten ari direnek, berriz, zuzenean entregatu beharko dituzte lanak Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea, 2), goizez, 07:30etik 15:30era. Sari bezala, 50 eta 120 euro arteko bonuak banatuko dituzte, herriko dendetan erabiltzeko. Informazio gehiago: [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) edo 943 744 366.

### 'Familia sarekada' antzerkia ikusteko aukera izango da gaur zortzi, Herriko Antzokian



*Familia sarekada* komedia taularatuko dute gaur zortzi Herriko Antzokian, Vaiven Produzioak ekoiztutxearen eskutik. Informatika Delituen Unitateko komisarioa, Villaorduñatarren etxean sartuko da, eta familia bereko lau kideak atxilotuko ditu. Zerbitzari informatiko partekatatu batean pornografia sare bat edukitzea leporatzen die. Probak aztertu ahala, Koldo, Aitor, Nora eta Monika konturatu dira, beti sarera konektatuta egon arren, euren artean erabat deskonektatuta daudela. Sarrerek salgai daude [www.herrikoantzokia.eus](http://www.herrikoantzokia.eus) atarian.



## Astlehenean zabalduko dute udaberriko oporraldian izena emateko epea

**E**lgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak eta Udal Ludotekak astlehenean zabalduko dute udaberriko oporraldirako izena emateko epea, eta martxoaren 17ra arte egongo da zabalik. Arduradunek esan dute plaza mugatuak izango direla. Eskaintza bi txandatan banatu dute, apirilaren 3tik 5era lehenengoa eta 11tik 14ra bigarrena. HH2-HH5 arteko haurrentzat txokoak egongo dira Atxutxiamaikak antolatuta, 9:00etatik 13:00etara. Lehenengo txandak 36 euroko prezioa izango du (bazkideek, 32) eta bigarrenak 48 euro (bazkideek, 43). Bi txandak 76 euro balio dute (bazkideek 68 euro). Gainerako eskaintza hauxe izango da:

**Abixadan LH1-3** (Atxutxiamaika eta Udal Ludotekak antolatuta):

1. **txanda:** Tribuen astea. (Etxola sortu, tribuen arteko lehiak...). 9:00etatik 13:00etara. 36 euro (bazkideek 32 euro).

2. **txanda:** Zientziaren astea. 69 euro (bazkideek 62 euro).

■ Apirilak 11: Durangora irteera (9:00 – 16:30).

■ Apirilak 12: Tye Dye kamisetak egiteko tailerra (9:00 – 13:00).

■ Apirilak 13: Bergarako Laboratoriumera irteera (9:00-16:30).

■ Apirilak 14: Sukaldaritza esperimentalak (9:00- 13:00).

■ Bi txandak: 94,5 euro (bazkideak 85 euro)

**Aldenik Alden LH4-6** (Atxutxiamaika eta Udal Ludotekak antolatuta):

■ Apirilak 3-5 Lasturren egonaldia. 72 euro (bazkideak 65 euro)

■ Apirilak 13. Iluntze pasa. 18:00-22:00. 12 euro (bazkideak 11 euro).

### Dultzaineroen diana eta Udal Musika Bandaren kontzertua, domekan

Domekan, martxoaren 5ean, kontzertua emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak, Herriko Antzokian, 12:30ean. Juanma Saez Etxabek zuzenduko du kontzertua eta honako pieza hauek joko dituzte: *Viva la Banda!* (Miguel Asins Arbo), *Abba on Broadway* (Arr: Michael

Brown), *Blades of Toledo* (Trevor Sharpe), *The Legend of Amber Room* (Michael Geisler) eta *The Symphonic Gershwin* (G. Gershwin). Horrez gain, dultzaineroen diana ere egongo da goizean. 10:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte.



### 'Into the ice' espedizioaren berri eman du Eñaut Izagirrek

*Into the ice* espedizioari buruzko argazki erakusketa jarri du Eñaut Izagirre geografo eta glaziologoak Aita Agirre kultur kafean, eta martitzenean bisita gidatua eman zuen. Darwin mendikateko izotz-eremuaren goraguneak izan dira *Into The Ice* espedizioaren helburua, eta esplorazio geografikoa, ikerketa glaziarra, eskalada eta abentura uztartu ditu planetako mendikate urrun eta basatienetako batean. Argazki bakoitzaren aurrean geldialdia eginez eman ditu espedizioari buruzko azalpenak. Martxoaren 18ra arte egongo da argazkiak ikusteko aukera. Bideoa: **barren.eus**



25. urteurrenean Haritz dantza taldekoek San Bartolome parrokia atarian egin zuten argazkia.

## 50 URTE DANTZAN

✍️ Ainara Argoitia

**Haritz Euskal Dantzari Taldeak 50 urte beteko ditu abuztuaren 24an, San Bartolome egunez, eta urteurrena ospatzeko, urte osoko egitaraua antolatu dute. Urtarrilean aurkeztu zituzten egitarauko puntu nagusiak eta ari dira egunez egun zehaztasun guztiak fintzen. Hilabetero ekintza bat izango zela aurreratu zuten urtarrilean, -martxoan, abuztuan eta irailean bina-, baina ekitaldi nagusia ekainaren 17rako iragarri dute: Haritz Eguna. Egun horretarako, Haritz Euskal Dantzari taldean edota aurrez Elgoibarren izan ziren beste dantza taldeen bueltan ibilitako dantzari guztiak bildu nahi dituzte. Dantza kalera atera nahi dute, bai eta balioan jarri ere dantza eta dantza taldea, besteak beste, garbi dutelako dantza taldeak oso garrantzitsuak izan direla eta direla euskal kulturaren sozializatzeko.**

**E**uskal dantzaren transmisioan eta bizirautean ezinbesteko lana bete du eta betetzen du Haritz Euskal Dantzari Taldeak Elgoibarren. Ofizialki, 1973an sortu zuten taldea Elorra, Ongarri eta Elgoibarko Izarrako dantza eskoletan ibilitako hainbat dantzari eta txistularik San Bartolome egunez sokadantza dantzatzeko, eta geroztik, zientoka dantzari batu dira taldera, soka luzatzera. Sortzetik bertatik, bi zutabe nagusi izan ditu Haritz Euskal Dantzari Taldeak, San Bartolome eguneko sokadantza eta dantza eskola, eta bi norabide bere egitekoan: Elgoibarko tradizioak mimoz gordetzea eta erreperitorioan sakontzea eta eduki berriak ikastea.

Baina dantzaren transmisio eta biziraupenerako bezain tresna garrantzitsua izan da dantza taldea komunitatea kohesionatu eta artikulatzeko eta belaunaldi ezberdinak euskal kulturaren sozializatzeko. Hala ere, eta dantza taldeak berak hain funtzio garrantzitsua bete arren, taldekideek uste dute ez zaiola beti behar besteko balioa eman dantza taldeak egindako lanari, eta sarri askotan gutxietsia ikusi dute dantza bera ere. Ez da, hala ere, hori Haritz Euskal Dantzari Taldera mugatzen den kontua. Oier Araolaza dantzari, antropologo eta Dantzan elkarteko kideak *TTap* aldizkarirako Idoia Torregarai kazetariak egindako elkarrizketan zioen "gutxienez" hitz egin izan dela dantza taldeen lanaz, eta bi arrazoi nagusi ere ematen ditu elkarrizketan: batetik, "konplexua", euskal kulturako testuinguru batzuetan "folklorearekiko dagoen fobia halako bat", eta bestetik, azken 40 urteotan euskal kulturaren eta euskal identitatearen ardatz gisa euskara hartu izana eta ondorioz berbazko hizkuntza beren funtsezko osagaitzat ez duten diziplinak alboratu izana. Arrazoiak edozein direla ere, egoera hori irauli nahi dute Haritz Euskal Dantzari Taldekoek eta helburu nagusi horren bueltan ardaztu dute urteurrena.

Iñaki Gil, Ion Arrieta eta Jon Lizarralde hiru historiko dira Haritzen. Elgoibarko Izarrako dantza eskolan hasi zen Gil dantzan eta 1982an Haritz dantza taldearen zuzendaritza hartu zuen aldi baterako. Ion Arrieta, berriz, 1973ko abuztuaren 24an plazaratu zen talde haren bultzatzaile nagusia izan zen eta Lourdes Odriarekin batera Elgoibarko Izarrako dantza eskolari lotuta egon zen urte askoan. Jon Lizarralde, azkenik, 21 urterekin hasi zen Haritzen eta karisma eta itzal handiko dantzaria da gaur taldean, erreferente

bat. Dantza bizi dute hirurek eta dantzak lagunarte zabala eta bizi-esperientzia ahaztezinak eman dizkietela aitortu dute. Beren ardurak alboratu gabe, dantza taldearen urteurrena prestatzeko lantaldean dihardute buru-belarri azkeneko hilabeteetan, gazteagoekin batera. Hainbeste eman die dantzak, hain ondo pasatu dute dantzan, hain ikusten dute osasungarri dantzatzea eta hain garbi dute dantzak herri hau herriago egiteko egin duen ekarpena "berezikoa" izan dela, nahiko luketela Elgoibarren ehunka dantzarik osatu duten soka hori luzatu. Alexander Humboldt humanistari irakurritako esaldi bat ekarri du gogora Iñaki Gilek: "Humboldt irakurri nion Pirinioen bi aldeetan dantzatzen zen herria zela gure hau, eta hala da. Dantza izan da gure ospakizunetako osagai nagusia. Beti dantzatu gara kalean, baina gaur dantza gehiago da oholtzako zerbait, eta atera behar dugu berriro kalera". Elgoibarko plazan egon badago dantza, eta azpimarra hori egin du Jon Lizarralde. Dantzaera dotorekoa, eredu bat da Lizarralde Haritz Euskal Dantzari Taldean. Hamaika ekitalditan egin du dantzan, izan lagunarteko ospakizunetan, jai-girokoetan zein ekitaldi ofizialetan, eta argi dio: "Ez da agurra dantzatu gabeko ekitaldirik. Kuadrillakoen ezkontza ospakizun gehienetan dantzatu dut agurra nik, baina zenbat lagun etorri dira gero plazara gu dantzan ikustera? Ez dakit zer den, geure-geure sentituko bagenu bezala da, baina gero dantzari bizkarra emanda moduan bizi dira asko".

Gaur, lau dira Haritz Euskal Dantzari Taldearen Elgoibarko agendan ekintza nagusiak, San Bartolome eguneko sokadantza, Errosario kaleko amaren ezpata dantza, Nazioarteko Folklore Jaialdia eta 'Plazara dantzara' erromeria.

## Lau dira Haritzen agendako ekintza nagusiak, gaur: sanbartolomeetako sokadantza, Errosario kaleko amaren ezpata dantza, Nazioarteko Folklore Jaialdia eta 'Plazara dantzara' erromeria.

ez dago Elgoibarren. "Falta da zerbait, baina", dio Ion Arrietak. Arrietaren esanetan dantza gure gorputz hizkuntza da umetatik eta atera behar dugu hori. "Denok dantzatzen ginen lehen. Giro hori piztu nahi dugu, zabaldu denok garela dantzari, denok egin genezakeela dantzan, hobeto edo okerrago".

Dena dago, baina, dantzari balioa aitortzearekin lotuta eta erronka horri heldu nahi diote. Horretarako politika publikoetan esku-hartzeko



*Iazko San Bartolome eguneko sokadantza goian, eta Errosarioko amaren ezpata dantza, behean. Sokadantzaren neskek izan ziren auresku eta atzeskulariak iaz eta gona jantzita plazaratu ziren dantzari gizonetako batzuk.*

premia ere ikusten dute. Izan ere, uste dute aisialdirako jardueren eskaintza zabalaren erdian, babes txikia duela dantzak, hein handi batean ez delako kiroltzat hartzen. "Kirola sustatzen da, baina ez dantza. Dantzatzea ez omen da kirola egitea. Ez dute zenbat izerdi botatzen dugun ikusten nonbait! Jendea ez da konturatzen osasunerako kirola bezain onuragarria dela dantza. Kirola modu lehiakorrean ulertzen da nagusiki eta lehiaren kontua badago generoari lotua ere", aipatu du Lizarraldek. Hori delako bestea. Umeei jai orduko esaten zaie zein den asignatu zaien genero-identitatea, eta ondorioz, genero bakoitzari lotutako jarduera estereotipatuak aukeratzen dituzte normalean. Horregatik identifikatzen dute askok dantza nesken jardueratzat. Datuak argiak dira. "11 urteko ikasleen artean bakarra da mutila. 12 urtekoetan ere mutil bakarra daukagu eta 13koetan, bat ere ez. Buruz ari naiz, baina hortik gora ere antzera. Oso mutil gutxi daukagu", zehaztu du Lizarraldek. Eta gehitu du ondotik Gilek: "Gure garaiko argazkia beste bat zen. Gizonezkoak gehiago ginela esango nuke. Orain, mutil faltagatik, neskak hasi dira duela gutxira arte arte gizonok egiten genituen dantzak dantzatzen". Irtenbidea ere proposatu dute: "Eta eskolako gimnasia orduetan hasiko balira dantzako oinarritzko pausoak erakusten?".

Aisialdiko kultur jardueren artean dantza azken aukera izan ohi dela sentitu izan du behin baino gehiagotan Lizarraldek: "Eskolaz kanpoko jarduera asko dituzte orain umeei eta bestelakoen ordutegiek beti dute lehentasuna. Moldatzekotan geuk moldatu behar dugu beti". Nerabezaroan

## Bizinahi, ilusio eta bizipoza zabaldu nahi dute Haritz Euskal Dantzari Taldekoek urteurrenaren harira dantza kalera aterata.


hasten dira bereziki ikasleak dantzatik urruntzen, bereziki mutilak, gehienak kirolera. "Kirol eskakizuna handitzen denean, entrenamendu eta txapelketa gehiago daudenean, normalean kirolera jotzea erabakitzen dute. Barruraino sartuta daukagu lehiaren kontu hori: Dena da irabazi ala galdu. Nik ikasleei beti esaten diet lagunak egitea dela bizitzan garrantzitsuena, ez dantzari onena izatea". Eta horretarako aukera ezin hobea ikusten du dantzan, Arrietak. "Gu kuadrilla oso bat batu ginen dantzara gaztetan. Harrobi izugarria geneukan Elgoibarko Izarraren dantza eskoletan, lagun-giro demasa, eta bizitasun handia herriak, dantzari esker". Eta hori, bizinahi, ilusio eta bizipoz hori zabaldu nahi dute Elgoibarren dantza kalera aterata. Bat datoz Imanol Arantzamendi eta Maria Ferreiro dantzari gazteagoak ere. Urteurrena antolatzeko taldeko kide dira eta ilusioz ari dira lantaldean. Egitarau oparoa aurkeztu zuten urtarrilean eta mimoz ari dira detaileak lotzen, baina aitortu dute ekainerako iragarri duten Haritz Egunak aparteko ilusioa sortzen diela. Elgoibarren dantzan ibilitako guztiak bildu nahi dituzte egun horretan, eta hortxe jarri dute azpimarra. "Egun berezia izango da, eta denok egotea nahiko genuke".



*2022ko Nazioarteko Folklore jaialdiko argazkia.*



1998ko San Bartolome egunez, atzeskulari eta aurrekulariei egindako omenaldia.



### **BESTE LIBURU BATERAKO ADINA MAMI BADA**

1998an bete zituen Haritz Euskal Dantzari Taldeak 25 urte eta taldearen historiaren zatirik handiena jasoa dago Oier Araolazak, Pello Arrietak, Koldo Lizarralde eta Jose Inazio Sarasuak

idatzi eta Ongarri Kultur Elkartek 2000. urtean, argitaratutako *Elgoibar dantzan* liburuan. Haritzen ibilbidean leku berezia bete duten Jose Inazio eta Jesus Mari Sarasua anaiek gidatu eta koordinatu zuten liburua eta 25. urtemugaren harira kaleratu zuten, baina joan dira ordutik beste 23 urte, mende erdia beteko du abuztuan taldeak, eta beste liburu bat idazteko beste pasadizo eta kontu bildu dituztela uste du Ion Arrietak. 1973ko abuztuaren 24an, San Bartolome egunez, plazaratu zen talde haren bultzatzaile nagusia izan zen Arrieta, Ongarrin dantzari eta Elorran txistulari ibilitakoa eta Elgoibarko Izarrako dantza eskolari urte askoz lotutakoa.

Iñaki Gil eta biak dira solasaldira batutakoan artean beteranoenak. Iñaki Gil bera ere gazte hasi zen dantzan eta 1982an dantza taldearen zuzendaritza hartu zuen aldi baterako. Biek parte hartu zuten duela 50 urte San Bartolome egunez dantzatu zuten sokadantzan, txistulari taldean eta biek ikusten

diote Haritz etorkizun luzea. "Begira zenbat kontu dauden bilduta 25. urtemugako liburuan, eta beste horrenbeste eta gehiagorako ere eman dute azkeneko 25 urte hauek. Beste liburu bat beharko genuke eta arantza hori daukat nik. Hori lortzea gauza handia litzateke", aitortu du Arrietak. Liburua ez momentuz, baina atzera-begirako bat egingo dute. Izan ere, 50. urteurreneko argazki, bideo eta dantzarako arropen erakusketa iragarria dute irailerako. Han bilduko dituzte Haritzen historian mugarri izan diren uneak, elkarlanean ondu dituzten ikuskizunetako irudiak, bai eta dantza talde honen ibilbidean ezinbesteko izan diren lagun askori egindako erreferentziak ere. 25. urteurreneko liburuan nabarmendu zituzten erreferente haietako asko, eta zerrendatu zituzten Haritz Euskal Dantzari Taldea osatu zuten dantzari eta musikarien izenak ere, baina gerora batu dira sokara gehiago ere, eta batuko dira gero ere, "dantzatzen duen herria delako gurea".



1998an, 25. urtemugaren baitan, egin zuten herri-bazkaria.

## EGITARUA .....

Marrazki lehiaketa antolatu zuten urtarrilean eta Inguma taldearekin erromeria inauterietan, baina beste dozena bat ekintza dituzte programatuta hemendik eta urte amaierara arte.

■ **Martxoak 12:** Aurreku txapelketa, 11:00etan Herriko Antzokian (urteroko zita).

■ **Martxoak 25:** Dantza jaialdia, 12:30ean Kalegoen Plazan (euria eginez gero, Herriko Antzokian). Portugaleteko Elai Alai, Galdakaoko Andra Mari eta Donostiako Argia dantza taldeak etorriko dira dantza egitera, Haritz Euskal Dantzari Taldearekin lotura estua izan duten taldeak. Arratsaldean, Inguma taldearekin erromeria.

■ **Apirilak 22:** Korrotik Pikutara. "Dantzaren historia dantzan". 12:30ean Kultur Kafean. Korrotik Pikutara erromerietako dantzen historia-dantza bat da, dantza-emanaldi didaktiko bat da "Korroan, borobilean hasi eta sokadantza, ingurutxo, kontradantza eta bikote dantzetatik pasa ondoren, soltean, bakarka eta noraezean edo pikutan bukatuko dugu. Dantzaren historia dantzan jarriko dute, aldi berean pedagogikoa eta entretenigarria izan nahi duen dantza emanaldian" (*Dantzan.eus*, 2021).

■ **Maiatzak 6:** Erraldoi topaketa. Goizean Kalegoen Plazan egingo dute erakusketa, eta ondoren, kalejira abiatuko dute. 11:00etan Kalegoen Plazatik Maalako parkeraino, berriro Kalegoenen amaitzeko. Barañaingo Ezpelur, Tafallako Asier Marco, eta Iruñako Buztintxuri konpartsak etorriko dira. Hiru konpartsetako erraldoien figurak dantzariak dira, dantza desberdinak errepresentatzen dituztenak. Joan zen urtean ez bezala, bazkalordurako amaituta egongo da. Arratsaldea musikarekin alaitu nahi dute.

■ **Ekainak 17:** Haritz Eguna. Ospakizun eguna izango da, eta dantza taldeko zapi, edalontzi eta kamisetak estreinatuko dituzte. Goiz eta eguerdian trikipoteo bat egingo dute. Elgoibarren dantza munduan ibili diren guztiak gonbidatu dituzte bazkarira ere. Arratsaldean

txaranga edo elektrotzaranga bat ibiliko da kalean eta gauerako erromeria lotu dute, Fan&Go taldearekin, Maalako parkean.i

■ **Uztailak 21:** XXXVI. Nazioarteko Folklore Jaialdia. Urteroko zita, atzerriko bi talde gonbidatu eta Haritz dantza taldekoak dantzatuko dira.

■ **Abuztuak 24:** Sokadantza. Bertan 1973ko soka-dantzariak omenduko dituzte, egun hori izango baita zehazki Haritzek 50 urte beteko dituen eguna.

■ **Abuztuak 27:** LXXXVI. Elgoibarko Dantza-Solte Txapelketa. Urteroko zita.

■ **Irailak 8-17:** Argazki eta bideo erakusketa Kultur Etxean. 1973tik aurrera bildu dituzten argazki, bideo eta zenbait dantza-arroparen erakusketa egingo dute Kultur Etxean.

■ **Urriak 7:** XIV. Errosarioko Amaren Ezpata Dantza. Urteroko zita da hau ere, baina aurten Errosarioko Amaren egunean bertan dantzatuko dira.

■ **Urriak 21:** Dantza jaialdia. 12:30ean Kalegoen Plazan (euria eginez gero, Herriko Antzokian). Azkeneko urteetan harreman handiena izan duten bi dantza talde gonbidatuko dituzte, eta Haritzekoak ere dantzatuko dira. Arratsaldea musika talderen batek girotuko du, baina ez dute zehaztu zeinek.

■ **Azaroa (eguna zehazteke):** Mikel Sarriegiren hitzaldia, Gipuzkoako zenbait dantzen historiaz.

■ **Abenduak 30:** Plazara Dantzara. Urteroko zita. Urtea amaitzeko, harrobiko dantzari gaztetxoenetatik hasi eta dantzari beteranoetarainokoak elkartuko dira, dantzarako.



*Haritzekoak 2022ko Plazara Dantzara erromerian.*

## Hodei Ezpeletak eta Jokin Urretabizkaiak irabazi dute Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketaren finalak jokatu zituzten domekan, Urrestillako Txikuri frontoian. Lau bikote aritu ziren lehian. Hiru bikote multzoko sailkapenburu izateagatik sailkatu ziren finalerako eta laugarren bikoteak, Hodei Ezpeleta *Bihurrik* eta Jokin Urretabizkaia *Basozabalek* osatutakoak, bigarren postuan sailkatuetaoan arteko finalerdia irabazita lortu zuen finalerako sailkatzea. Eta zer diren gauzak, zuzeneko sailkapena lortu ez zuen bikotea izan da onena finalean. Urrestillako finalean askotariko lanak egin behar izan zituzten: 45 ontzako enbor bat kolpeka ebaki, beste enbor bat erlojupekoan, kanaerdiko bat zutik, 65 ontzako bat abiadura proban, 45 ontzako zutik, kanaerdiko bat etzanda, eta bukaeran, bina kanaerdiko, 60 eta 65 ontzako enborrak. Azken lan luzea 24 segundoko atzerapenarekin hasi zuten arren, Ezpeleta mendarorarrak eta Basozabal donostiarrek osatutako bikotea



izan zen lanak amaitzen azkarrena, 17 minutu eta 19 segundo behar izan baitzituzten lanak bukatzeko. Irabazleek 50 segundoko aldea atera zieten bigarren denborarik onena egin zuten Iker Vicenteri eta Jon Rekondori (18:09). Mikel Larrañaga eta Txomin Amundarain sailkatu ziren hirugarren postuan (18:52) eta Julen Alberdi *Txikia IV.* eta Ioritz Gisasola *Zelai IV.* laugarren postuan (19:16).

### Motor-zaleen greba dela-eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak bertan behera laga du martxoaren 11ko kadeteen lasterketa

Txirrindularitza lasterketetan bidegurutzak zaintzen dituzten eta lotura lanak egiten dituzten motor-zale gabe ez dago ikuskizunik. Lan horietan ibiltzen direnek planto egin dute, eta euren laguntza gabe Ertzaintzak ez du lasterketarik egiteko baimenik ematen. Ondorioz, Gipuzkoako txirrindulari elkarte batzuk hasi dira lasterketak bertan behera lagatzen, tartean Mendaroko Txirrindulari Elkarte (MTE). Hala, bertan behera laga dute martxoaren 11rako antolatuta zuten kadeteen lasterketa. MTEko

arduradunek horrenbeste urtean lasterketetan laguntzen ibili zaizkien motor-zaleei babesa erakutsi diete, eta, 2022ko urrian jarritako lan-baldintzak betetzeko eskatu dute. "Motor-zaleen eskaerekin bat baldin bagatoz, denboraldia ez hasteko eta lasterketak jokatu ala ez erabakitzea antolatzaileen gain ez uzteko eskatzen diogu Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioari", adierazi dute. Konponbiderik aurkitu ezean, Gipuzkoako txirrindulari lasterketen egutegi osoa dago kolokan.

### Lau urteko etenaren ostean, bueltan da Pilota Eguna

2019an egin zuten azkenekoz Pilota Eguna, gaztetxoan artean pilota eta kirola sustatzeko Elgoibar Ikastolak antolatzen duen kirol jardunaldia, 2020koa, 23. ekitaldia izan behar zena, bertan behera laga baitzuten pandemiagatik. Izurriak eragindako geldialdiaren

ostean, zapatu honetarako antolatu dute Pilota Eguna. Finalera sailkatu diren bikoteek Kalegoen plazako frontoian jokatuko dituzte norgehiagokak (euria egingo balu, Ikastolako frontoian), 10:30etik aurrera. Guztira hamalau partida jokatuko dituzte, 12 tantotara.

## Antzuolako 8 Miliak proba irabazi du Mayi Mujikak



**A**ntzuolako 8 Miliak lasterketaren hamargarren edizioa jokatu zuten zapatuan, eta 300 antxitxikari inguruk hartu zuten parte. Proba honetan estreinakoz lehiatu zen Mayi Mujika eta bera izan zen azkarrena emakumezkoetan. Ordubete, hemeretzi minutu eta 33 segundotan osatu zuen 14,1 kilometroko (736 metro positibo) ibilbidea. Lasterketa luzeagoetara ohituta dagoen arren, denboraldia hasteko lasterketa polita izan dela esan du Mujikak. "Desiatzen nengoen ibilbideko lekurik garaienetara ailegatzeko, berez direlako ederrak, baina elurrarekin are gehiago gozatu dut. Poz-pozik joan naiz". Mujikaren ostean iritsi ziren

helmugara Irati Larrañaga usurbildarra (1:20:58) eta Garazi Abasolo aretxabaletarra (1:21:35). Gizonezkoetan Ibai Larrea antzuolarrak errekorra ondu zuen, ordubete eta 51 segundotan helmugaratuta, iaz baino bi minutu gutxiagoan. Elgoibarko mendi lasterkariak ere hartu zuten parte, tartean Casa Astigarraga Trail Taldeko sei kidek. Juanan Martinek eta Iker Arrillagak egin zuten denborarik onena: 1:14:53. Bi lagunek elkarrekin gurutzatu zuten helmuga marra, 23. eta 24. postuetan. Casa Astigarragako Martin Egizabal 28. postuan sailkatu zen, 45.ean Pablo Egizabal, 47.ean Aitor Hernandez, 91ean Andoni Gabilondo eta 137.an Jose Luis Diez Txelu.

### Eneko Ortega podiumera igo da denboraldiko estreinako lasterketan

Junior txirrindulariek denboraldiko lehen lasterketa jokatu zuten domekan: San Veremundo Zirkuitua. Lizarratik lau kilometrora dagoen Villatuerta herrian hasi eta bukatu zuten 71 kilometroko proba. Eguneko bost txirrindulari indartsuenak iritsi ziren lasterketa irabazteko aukerakin azken aldapara, eta Gari Ugarte (Bellota Goierri) txirrindulari legazpiarra izan zen guztietan azkarrena (01:43.20). Irabazlearengandik metro gutxitara sartu ziren helmugan lau jarraitzaileak: Unax Olano (Oriako), Eneko Ortega (Besa Laboral Kutxa) eta Unai Ramos (Vizcay). Aurreko denboraldian maila aparta erakutsi zuen Eneko Ortegak, bizikletan hasi zenetik bere denboraldi onena izan zela aitortu zion BARRENI, eta ildo beretik hasi du junior mailan arituko den bigarren



denboraldia ere, lehen lasterketan hirugarrenen postu bat eskuratuta.



## June Loidik Batalha nazioarteko eskubaloi txapelketa jokatu du Espainiarekin

Espainiako senior mailako emakumezkoen eskubaloi selekzioak, Guerreras taldeak, Batalha izeneko nazioarteko txapelketa jokatu du asteburuan, Portugalen, eta Espainiako taldeko hautatzailearen azken orduko deia jaso du June Loidik. Guerreras taldeko hautatzaile Jose Ignacio Pradesek hamasei jokalaria deitu zituen Portugalgo txapelketa jokatzeko, baina Lara Gonzalezek ezin izango du Espainiako taldearekin jokatu, lesio bat medio. Gonzalezen lekua betetzeko sartu dute deialdian June Loidi, Super Amara Bera Bera taldeko hegalekoa. Loidik 2022ko Mediterraneoko Jokoetan jokatu zuen azkenekoz Espainiako selekzio absolutuarekin (urrea irabazi zuten). Guztira hamar partida jokatu ditu selekzioarekin eta bost gol sartu. Portugalen



jokatuko duten txapelketan, Cavo Verde izango dute aurkari lehen partidari, gaur; Italia zapatuan eta Portugal domekan. Lagunarteko partidak izango diren arren, garrantzi berezia dute, 2023ko Munduko txapelketara sailkatzeko kanporaketarako azken prestaketa izango baita Espainiarentzat. Kanporaketa hori Austriaren aurka jokatu dute: Viena hegoaldean dagoen Maria Enzersdorfen joanekoa, apirilaren 8an, eta, Antequeran (Malaga, Espainia) itzulerakoa, apirilaren 12an.

## Imanol Royo 'Lartain' harri-jasotzailea birraitonaren harriaren bila dabil

Imanol Royo *Lartain* harri-jasotzaileak Roman Lartain zuen birraitona, Arroagoiko Altamira baserrian jaioa XX. mendeko bigarren hamarkadan. Hura ere harri-jasotzailea zen. Itxura denez, hainbat apustu egin zituen, eta aipagarriena da horietako batean 30 minutuan 212 aldiz altxatu zuela 100 kg-ko harria, 10 minutuko tartetan (10 minutuko hiru txanda), XX. mendeko berrogeiko hamarkadan edo. Argazkian ageri den harria da Lartain birbilobak aurkitu nahi duena: 100 kiloko zilindriko zahar bat, beheko aldean eskuak sartzeko kabi edo zuloak dituena eta goi-partean ildaska edo ebaki batzuk. Roman Lartain birraitona, nagusi ordurako, Elgoibarrera joan zen bizitzera, Urazandi auzora. Hantxe egin zuen etxe bat. Lekuko batzuek diote berarekin ekarri zuela harri hori Elgoibarrera; alegia, Urazandiko haren etxean zegoela oraindik harri hori berrogeiko hamarkada horretan. Etxean obrak egin zituztenean desagertu zen. Harri horren atzetik dabil *Lartain* gaztea. Bere peskizen berri ahoz aho zabalduz gero, pistaren



bat eman diezaiokeen norbaitenganaino heldu daitetekeela uste du.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

**685 724 861**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. **612 294 738**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. **641 739 472**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Sukaldari laguntzaile lanetarako ere bai.

**647 533 201**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, orduka edota asteburuetan. Beharrezkoa den titulua daukat.

**643 071 900**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gauzez edo asteburuetan. Esperientzia. Etxeko langile moduan lan egiteko prest.

**642 577 823**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gauzez edo asteburuetan. Esperientzia. Etxeko langile moduan lan egiteko ere prest.

**642 578 943**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulua ditut. **602 398 328**

Mutilla eskaintzen da lanerako. Edozein lan egiteko prest nago. **624 127 087**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. **624 127 122**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez, orduka. **632 794 799**

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez, ospitalean edo etxean. Arratsaldez ere ordu batzuk lan egiteko prest. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua ditut.

**632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Astelehenetik ostiralera.

**640 881 328**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Astelehenetik ostiralera.

**642 578 943**

**ETXEBIZITZA**

Etxea hartuko nuke alokairuan. Gela bakarrarekin nahikoa da.

**659 083 325**

**GARAJEAK**


Marradun garajea alokatzen dut, Lekuederren. **699 143 767**

**IBILGAILUAK**

Dethleffs autokarabana salgai. Sei leku bidaiarako zein lotarako, extra asko eta ondo zainduta. Kilometro gutxi, irailera arteko IAT-a eta arrisku orotarako aseguruia urrira artekoa. **629 415 984**

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide-Itzultzailea</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean behin baino gehiagotan izan ditugu uholdeak eta beheko solairuko lokaletako batean dauden kutxatila konpontzea erabaki dugu. Lan hori egiteko, lokal hori itxi egin behar da eta komunitateak erabaki du kalte-ordaina ematea lokal-jabeari, egun batzuetan itxita izan beharko duelako eta ezingo duelako han egiten dituenak egin. Kontua da lanak egiten hasi direnean konturatu direla kutxatila horietako batzuk itxita daudela eta kezka sortu zaigula lokal-jabeak izan dezakeelako erantzukizunik gertatukoaren inguruan.</b></p> <p>Derrigorra da, legeak hala jasota, erregistro putzu batzuk egotea eta haietara sarbidea egotea, garbiketa lanetarako eta behaketa lanetarako. Era berean, eraikineko urak kanporatzeko egiturara ematen duten kutxatila izatea ere oso ohikoa da. Kasu honi dagokionean, legeak argi dio lokal-jabeak ezin dituela erregistro putzua edo kutxatila itxi. Ezin duela haietarako sarbidea trabatu. Ez dezagun ahaztu lokal-jabe horrek komunitateko instalazio nagusiak errespetatu beharra dituela eta ezin duela haien eragiten dien obrarik egin. Jabekideen komunitateak kutxatila horiek zabaltzeko exijitu diezaiotke lokal-jabeari, bai eta lokal horretako errenteroari edo erabiltzaileari ere. Exijitutakoa idatziz jaso beharra du komunitateak eta bestea derrigorputa egongo da agindua betetzera.</p> <p><b>ONDORIOA:</b> Lokal jabea da kutxatila hori erabilgarri ez egotearen erantzule zuzena eta berari dagokio haiek zabaltzeko gastuei erantzutea. Era berean, kutxatila horiek zabaldu beharagatik aurreikusita zeuden lanak konplikatuta eta garestituko balira ere, berak ordaindu beharko luke gain kostu hori.</p> <p><b>AGENDA GOXR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Oso zoriontsuak izan dira zurekin ezkontuta eman ditudan 60 urteak, Flora! Quintin Bodegakoen partetik ere, zorionak bioi, **Floren eta Flora!**



Zorionak, **Jone**, astelehenean 10 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez, muxu bat.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.




## KONTSULTATEGIA

“ *Zergatik daukat hartz-sentsibilitatea eta nola egin diezaioket aurre?* ”

Inoiz sentitu duzu minik hortzetan baso bete ur hotz edatean edo izozki bat jatean? Min horri hortzetako sentikortasuna esaten zaio, eta estimuluekin kontaktuan egon ondoren agertzen da, hala nola beroa edo hotzarekin, gozoak edo azidoarekin edota ukitzean.

Hortzetan sortzen den sentsibilitate hori, hartz-piezen higaduraren edo hortzen sustraiak bistan egotearen emaitza da. Hala ere, batzuetan beste faktore batzuek eragiten dute, hala nola txantxarrak, hartz pitzatu edo ezpalduak, enpaste higatuak edo hortzoietako gaixotasun batek.



Hartz-sentsibilitatea baduzu, bisitatu dentista. Minaren arrazoi nagusiak antzeman ahal izango ditu, eta hainbat irtenbide gomendatu, hala nola: hortzetako pasta desentsibilizatzaile zehatz bat, hortzetako eskuila espezifikoak, fluoruroa eta etxean egin ditzakezun erremedio batzuk ere gomendatu ahalko dizkizu (ur epela gatzarekin, adibidez). Horri buruz zalantzarik izanez gero, galde iezaguzu edo gure kliniketara jo zure kasua aztertzeko.

**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)  
**943 366 377**

### 3 BARIKUA

**Denden ordutegian** Stock kale-azoka. Txankakuako dendek euren produktuak aterako dituzte denda atarira.  
**17:00** Odol ateratzeak, Mendaron. Ordua hartzeko: 747 440 060. Ostiral eguerdira bitartean hartu ahal izango da txanda.

### 4 ZAPATUA

**Denden ordutegian** Stock kale-azoka. Txankuako dendek euren produktuak aterako dituzte denda atarira.  
**10:30** Pilota Eguna. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. Eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian.

### 5 DOMEKA

**10:00** Dultzaineroen diana. Kalegoen plazatik abiatuta.  
**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Juanma Saez Etxabe.  
 Egitaraua:  
 1. *iViva la banda!*. (Miguel Asins Arbó)  
 2. *Abba on Broadway*. (Arr. Michael Brown).  
 3. *Blades of Toledo*. (Trevor Sharpe).  
 4. *The legend of Amber Room* (Michael Geisler).  
 5. *The symphonic Gershwin*. (G. Gershwin).  
**18:30** Dokumentala: 'Elbira'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

### 7 MARTITZENA

**19:00** Solasaldia: Maialen Iriarte Okiñena eta Aitziber Aranberri. EHBilduren egoitzan.

### 9 EGUENA

**19:00** Hausnarketa saioa: Isiltasun Eskola. Kultur Etxeko sotoan.

### 10 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Familia sarekada'. Vaiven Produkzioak eskutik, Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude [www.herrikoantzokia.eus](http://www.herrikoantzokia.eus) webgunean.

**Oharra:**  
 Martxoaren 8ari loturiko ekintzak erreportajearen daude zehaztuta.

**Aingeru Guardako jaiak**

**5 DOMEKA**  
**11:30** Hitzaren liturgia. Ondoren, bertsolariak: Aitor Urbieto eta Maider Arregi. Soinu eta Panderoan: Igor Rey eta Maite Olazabal. Bitartean, herri kirolak.

 **Eta, Debabarrenean zer?**

**Martxoak 9, eguna, Deban Errigorako produktuen dastaketa, 18:30ean**

Debako Zuhatza euskara elkarteak antolatuta Errigorako produktuen dastaketa egingo dute, elkartean bertan, doan. (J.M. Ostolaza kalea, 12). Izena emateko 688 840 308 telefonora deitu behar da.





colchoneria textil hogar

**Sukalderako nahiz jangelarako mahai zabalgarri eta aulki tolesgarri eta pilagarrietan aukera paregabea.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**Zinea**



**'La ballena'**

3 barikua: 19:00  
 4 zapatua: 19:00 / 22:15  
 5 domeka: 19:00  
 6 astelehena: 21:00

**'Mi querido monstruo'**

5 domeka: 16:30

**'Holy spider'**

(Ongarri zinekluba)

8 eguaztena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

**MARTXOA**

- 3 BARIKUA
- 4 ZAPATUA
- 5 DOMEKA
- 6 ASTELEHENA
- 7 MARTITZENA
- 8 EGUAZTENA
- 9 EGUENA
- 10 BARIKUA

**Egunez**

- Yudego
- Oruesagasti / ■ Garitaonandia
- Oruesagasti
- Barrenetxea
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez

**2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

■ Fernandez:  
 Herriko Enparantza,4  
 Garagartza (Mendaro)  
 943 756 142

■ Ibañez:  
 Rekalde, 1 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9 (Soraluze)  
 943 751 384



**hain·k**

Ile-apaindegia txakurrak & katuak

**Aurretiko hitzordua: 688 647 852**  
**MENDARO**

- Bainua, lehortzea eta ilea orraztea
- Bainua, lehortzea, ilea moztea eta orraztea (makinarekin edota guraizeekin)
- Stripping teknika (bizar-xafra eta harria)
- Azaleko tratamenduak (alergiak, dermatitisa...)
- Uzki-guruen garbiketa
- Entzumen-kanalen garbiketa
- Azazkalak moztea

f hain·k

@haink\_20850

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH WUU28T63ES**  
**ARROPA GARBIGAILUA**



**499 €**

- 8 kg-ko karga
- 1400 b/min
- Amaiera geroratua
- Active water teknologia
- 30 minutuko programa azkarra
- Etenaldia + karga funtzioa

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Jose Ramon Cabrera





## *Maria Arriola Arriola*

2023ko otsailaren 28an hil zen, 87 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Jose Maria Ondarra Etxabe*

*"Zelaieta"*

2023ko otsailaren 28an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## *Manuel Zabala Juaristi*

2022ko martxoaren 3an hil zen, 92 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,  
martxoaren 5ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretanoi, alde zurretik eskerrak.



I.URTEURRENA

## *Angelita Zabala Arriola*

2022ko martxoaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

***Betirako izango zaitugu gogoan.***


Seme-alabak eta familiako gainerakoak.



II. URTEURRENA

## *Ana Mari Azpiazu Unamunzaga*

2021eko martxoaren 7an hil zen, 72 urte zituela.  
Haren oroimenez II.urteurreneko meza izango da, domekan,  
martxoaren 5ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretanoi, alde zurretik eskerrak.



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)



errigora

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta  
eskutik eskura

# Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio  
birjina estra, kontserbak, arroza, pasta  
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta  
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

[errigora.eus](http://errigora.eus)



Bete ezazu  
despentsa  
*urte guztirako*

